Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 376

Ekainak 15, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Argazki Lehiaketa Herrikoia
4-5 Argazki historikoak
6 Elkarrizketa: Alarde Tradizionala kantinera
7 Elkarrizketa: Alarde Tradizionala jenerala
8 Elkarrizketa: Alarde Publikoko kantinera
9 Elkarrizketa: Alarde publikoko jenerala
10 Kirolak: Uranzuko pilota partidua
11 Kirolak: Iragan eta oraineko ekintzak
12 Haurren lanak
13 Gazteen lanak
14 iGazte
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

caser residencial

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1920. urteko ekaina amaierako tokiko aldizkaririk topatu ezean, 1918ko ekainaren 29an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria hiriko jaiek garai hartan Irunen sortu ohi zuten giroa ezagutzeko aproposa izan daiteke. Aldizkariaren zenbaki berezi honetako lehen artikuluak San Pedro eta San Martzial jaietako ekitaldi eta giroa modu sakonean deskribatzen ditu. Jarraian, jaien gaiaz aprobetxatuz, Irungo Komisionisten sektoreak haien egoera salatzen du idatzi labur baten bitartez. Txori Txiki kolaboratzaileak idatzitako hitzak irakur daitezke "Tiñaku´ri idatzi diotena" titulua daraman artikuluan. Ondoren, Hondarribiko kasinoaren berrikuntza lanen inguruko xehetasunak azaltzen dira idatzi zabal batean.

"De la cuenca de Elizondo" atalean, ordea, Xavier de Mirandak aurreko zenbakian argitaratutako idatziari erantzuten dio Gaucho Pamperok. Horren ostean, Irungo Musika Banda San Martzial egunean izan ohi duen protagonismo berezian zentratzen da hurrengo erreportajea. Tartean, Lumbierrek alardea ordezkatzeko proposamena egiten du berak idatzitako artikuluan. "Notas Municipales" atalean, azken udal bilkurako erabakiak errepasatzeko tartea egiten da, jarraian hirian eraikiko diren ontziola berrien inguruko azken nobedadeak aipatzeko. Kirol kronikan ekainaren 29an, aldizkaria argitaratzen den egun berean, egitekoa zen Cross-a da gai nagusia.

Jaien inguruan antolatutako zezenketak aipatu ostean, hurrengo jai egunetako ekitaldi eta ekintzen programa argitaratzen du aldizkariak, "Noticias" eta "Hace años ..." bezalako atal ohikoei lekua eginez. Horrela, ohikoa den bezala aldizkaria publizitaterako erreserbatutako azken orrialdearekin amaitzen da.

Argazki-oinak:
21348: Banda eta bere kantinera San Juan plazan 1949. urtean.
52489: Alardeko parte-hartzaileak San Juan plazan 1908. eta 1920. urteen artean.
29162: Mendibileko zezen plaza 1910. eta 1912. urteen artean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Irungo Argazki Elkarteak Irungo XXXIV. Argazki Lehiaketa Herrikoia antolatu du

Lehiaketan parte hartu ahal izateko argazkiak ekainaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dira

San Pedro eta San Martzial jaien inguruan Irungo Argazki Elkarteak, Irungo udalaren babesarekin, Irungo XXXIV. Argazki Lehiaketa Herrikoia antolatu du. Hala ere, sanmartzial ezohiko hauetan lehiaketaren formatua egokitzea ezinbesteko izan da. Bi atal nagusi izango ditu argazki lehiaketak: Irunekin zerikusia duten argazkiak eta gai librea.

Irungo Argazki Elkarteko kideek argazki lehiaketaren oinarriak egokitu eta osasun krisialdiaren ostean murriztapen eta segurtasun neurriak errespetatzeko modua topatu dute. Gerardo García Irungo Argazki Elkarteko presidenteak adierazi duenez, "aspalditik San Pedro eta San Martzialen inguruan antolatzen dugun ekintza da". Lehiaketa garai berrietara egokitzeko modua topatzeko Irungo Kultura arloak hiriko elkarte kulturalekin antolatutako bileran parte hartu zuten eta lehiaketa antolatzeko asmoa jakinarazi zutenean, udal ordezkarien onarpena jaso zuten.

2020. urteko argazki lehiaketa antolatzeko oinarri gehienak bere horretan mantendu dira, aldaketa nabarmenik gabe. Nobedadeen artean, aurten ez da paperean inprimatutako argazkirik jasoko. Lehiaketara aurkeztu nahi diren argazkiak posta-elektronikoz bidali beharko dira popular2020@afi-iae.com. Irudiak entregatzeko epea ekainaren 19ko gaueko 24:00etan amaituko da. Oraindik goizegi da lehiaketaren arrakasta neurtzeko, izan ere, Gerardo García elkarteko presidenteak adierazi duenez, jende askok epemugaren azken egunera arte itxaroten du lanak entregatzeko. "Aurtengo jaiekin loturik baieztatu den lehen ekintzetako bat izan denez, lehiaketan jende askok parte hartzea espero dugu", gaineratu du elkarteko presidenteak.

Gerardo García, Irungo Argazki Elkarteko presidentea

Lehiaketaren antolaketarekin lotutako bigarren nobedadea irabazleak aukeratzeko bozketa publikoarekin loturik dago. Izan ere, aurreko urteetan herritarrek lehiaketara aurkeztutako argazkiak bisitatu eta elkartearen egoitzan bertan bozkatzen zuten haien argazki gogokoena. Oraingoan, berriz, jende pilaketak saihesteko bozketa ekainaren 22ko egun osoan zehar egingo da, baina, internet bidez. Argazkiak Irungo Argazki Elkartearen webgunean erakutsiko dira eta hiritarrek 24 ordu izango dituzte gehien atsegin dituzten argazkiak bozkatzeko.

Gai aukera zabala

Argazki lehiaketa herrikoiak bi ardatz nagusi ditu. Batetik, parte hartzaileek Irungo hiriarekin lotutako argazkiak aurkeztu beharko dituzte. Bestetik, gai libreko atala du lehiaketak eta bertan edonon aterako argazkiak aurkeztea onartzen da. Lehiaketa San Pedro eta San Martzial jaien inguruan antolatu arren, argazkiak ez dira Irungo jaiekin loturik egon behar. Gerardo García elkarteko presidenteak azaldu duenez, "konfinamenduan zehar ateratako argazkiak onartzen, bai Euskal Jira, Opila eguna edo hiritarrek haien artxiboan daukaten beste edozein argazki". Elkarteko presidentearen iritziz lehiaketak oso gaitegi zabala du, beraz, argazkilaritzaren ezagutza sakonik izan ez arren, hiritar guztiak gonbidatzen ditu lehiaketan parte hartzera. "Lehiaketaren izenak berak adierazten duenez, hiritar guztiei zuzenduta dagoen lehiaketa da honakoa", gaineratu du Gerardo Garcíak.

Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahalko ditu lehiaketara eta horietako bat gutxienez Irunekin nolabaiteko lotura izan beharko du Irun atalean parte hartzeko. Irudiak JPG formatuan bidali beharko dira eta alde luzeenak 1.200 pixel izan beharko ditu gehienez. Hortaz gain, argazki-artxibo bakoitzaren izenak lehiaketako zein ataletan parte hartzen duen zehaztu beharko du, Irun edo gai librean. Gainera, argazkiarekin batera mezu elektronikoan egilearen datu pertsonalak eta telefono zenbakia zein den adierazi beharko da.

Irabazleentzako sariak

Lehiaketako irabazleek, garaikurraz gainera, irungo saltokietan erabili ahalko diren erosketa-bonoak jasoko dituzte opari gisa. Gerardo Garciaren hitzetan "sari honen bitartez irabazleak errekonozitu eta, era berean, tokiko ekonomia lagundu nahi dugu". Era honetan, parte hartzaile bakoitzak sari bakarra eskuratu ahalko du gehienez. Lehiaketako irabazleak ekainaren 24eko 20:00etan jakinaraziko dira elkartearen webgunean.

Gerardo García, Irungo Argazki Elkarteko presidentea

Argazki irabazleekin batera, lehiaketara aurkeztu diren beste zenbait irudi inprimatu eta erakusketa bat antolatzeko asmoa dute lehiaketako antolatzaileek. Irungo Argazki Elkarteko presidenteak adierazi duenez, "erakusketa zein sari-banaketaren data eta lekua zehazteko daude oraindik". Hala ere, lehiaketako sariak erakusketaren inaugurazio egunean banatzeko asmoa dutela iragarri dute. Horrela, 2020. urteko Irungo jaien ospakizuna berezia izan arren, argazkilaritzak ez dio ohiko hitzorduari kale egingo.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Iragana gogora ekar

Argazki historikoek balio handia dute. Iraganeko gertakarien lekuko grafikoak izateaz gainera, hiriak eta ohiturak nola eraldatu diren islatzeko aproposak izan daitezkeelako. Irungo Artxiboaren Fototekan bildutako argazki multzo honek XIX. mendearen hasieraz geroztik San Pedro eta San Martzialetako jaiek utzitako aitzinako irudiak biltzen dituzte. Irudiek hiritarren janzkera zein orrazkera ohituren aldaketa agerian utzi edo arbasoen aurpegiak islatzeaz gainera, hiriko zenbait kale eta bazter identifikatu eta azken hamarkadetan zenbat aldatu diren erakusteko aukera eskaintzen dute. Aurten, festak hiriko kaleak beteko ez dituen arren, oroitzapenak berpiztu eta iraganean bizitakoak gogora ekartzeko aukera aproposa izan daiteke.

G48987

G57805

G27361

48987: Alardeko kideak XX. mendearen hasieran.
57805: Aire zabaleko mezaren ospakizuna 1910. eta 1913. urteen arteko San Martzial egun batean.
27361: Kantinerak eta alardeko soldaduak San Martzial mendian 1923. urtean.
21338: Atxeroak San Juan plazara sartzen 1949. urtean.
21538: Zalditeriako kantinera eta jeneralaren laguntzaileak San Juan plazan 1950. urtean.
26406: Artilleriako kideak San Juan plazan 1954. urtean.
20929: Alardeko infanteriako konpainia deskarga egiten 1954. urtean.
20924: Santa Elena konpainia San Juan plazan.
50410: Bandako kideak eta kantinera 1956. urtean.
12028: Jaietako bazkaria San Martzial mendian 1957 urtean.
53144: Erromeria San Marcial mendian.
21141: Elizako goi-karguak alardeari amaiera emanez 1961. urtean.
26365: Kantinerak aurkezpen egunean 1962. urteko ekainaren 28an.
13012: Danborradako kideak San Juan plazara iristen.
56460: Patxo Jenerala eta zalditeriako laguntzailea Junkal plazan.

rtzeko une aproposa

G130012

G56460

G120028

G53144

G211141

G26365

G26406

G20929

G20924

G50410

G21338

G21538

Ana Aguirresarobe, Ama Shantaleneko kantinera joan den urtean:

“Aurten alarderik egon ez arren, datorren urtean gogo bikoitzekin biziko dugu”

Ana Aguirresarobe Alarde Tradizionaleko Ama Shantaleneko konpainiako kantinera izan zen 2019. urtean. Kantinera izan osteko lehen sanmartzialak gogo handiz espero zituen Anak, baina, aurtengo alardea bertan behera gelditu dela jakin ostean, datorren urteko festak oraindik bereziagoak izango direla uste du.

Nola imajinatzen zenituen 2020. urteko San Martzialak?
Ilusio eta emozio handiz espero nituen aurtengo jaiak. Izan ere, joan den urtean alarde tradizionaleko kantinera izan nintzen, baina, aurten oraindik kantinera berriei lore-sortak oparitu eta bestelako une bereziak bizitzea gelditzen zitzaigun.

Aurten kantinera izan ez arren, momentu berezi horiek lehen pertsonan bizitzeko gogoak zenituen?
Bai, nahiz eta momentu berezi horiek nolakoak izango diren imajinatzea ezinezkoa den. Nire ustez gauzak datozen bezala bizitzea da egokiena, aurreikuspenik gabe, ahal bezain beste disfrutatzeko. Kantinera izan ostean, hurrengo urtean zure leku berean egongo den neska ezagutzea oso berezia izan behar du, momentuko ilusioa partekatu eta lore-sorta oparitu ahal izateko.

Nola erreakzionatu zenuen aurten alarderik egongo ez dela jakin zenuenean?
Pena handia ematen du alardea egingo ez dela jakiteak, izan ere, oso gertaera ezohikoa da alarderik gabeko urte bat bizitzea. Hala ere, bizi dugun egoera ikusita, argi dago osasunak lehentasuna duela eta aurten alarderik egon ez arren, datorren urtean gogo bikoitzekin biziko dugu.

Beraz, erabakia ezagutu aurretik, alarderik egongo ez zela imajinatzen zenuen?
Bai, aurretik jeneralarekin hitz egin nuenean aurtengo alardeaz galdetzen nionean ezjakintasunez begiratzen zidan, nahiz eta guztiok aurtengo alardea egitea ezinezkoa izango zela jakin. Ama Shantalen konpainiako kantinera berria aukeratu behar zuten egunean barneratu nuen aurten alarderik egongo ez zelaren albistea eta tristura handia sentitu nuen.

Ekaineko hilabetearen hasierarekin, joan den urteko oroitzapen asko datorkizu burura?
Bai, asko gainera. Ekaineko hilabetea entsegu eta bestelako prestaketez betetako hilabetea da eta joan den urteko egun berean egindako gauzak etortzen zaizkizu burura. Kantinera trajearen probak, botak probatzea eta beste mila gauza.

Zein izan zen joan den urtean bizitako momentu bereziena?
Ekainaren 30ean, adibidez, etxe azpian Alborada jo zidaten eta sekulako sorpresa izan zen. Alardea hasi aurretik aitaren omenez egindako deskarga ere oso berezia izan zen. Alardean zehar bereziak diren une asko daude, Arrankada nola ez, baina, San Juan plazan sartu eta udaletxeko balkoian Isa lehengusua, nire izeba Coro eta ama ikustea oso berezia izan zen.

Bereziki hunkitu edo espero ez zenuen unerik bizi zenuen joan den urtean?
Mundu guztiak kale nagusiaren jaitsieraz hitz egiten du, baina, igoera oso berezia da ere. Nire konpainia justu Kale Nagusiaren hasieran gelditu zen eta izugarria da bertatik jendearen oihuak entzutea. Kale Nagusiaren jaitsiera izugarria da, baina, igoera ere paregabea da.

Egoera ezohiko honen erdian, nola imajinatzen dituzu aurtengo festak?
Jaiak ospatzeko zerbait antolatuko dugula uste dut. Familiakoei abisatu diet ekainaren 30ean etxean Alborada eta Diana ipintzeko asmoa dudala. Ondoren, urtero bezala bazkaltzeko elkartuko garela uste dut.

Kantinera izan zinenetik urte bat igaro den arren, hainbeste denbora igaro dela sentitzen duzu?
Bizipen guztiak atzo gertatu zirela iruditzen zait . Argazkiak edo bideoak ikusten ditudanean edo jendearekin gaiaren inguruan hitz egiten dudanean, denbora asko igaro arren, duela gutxi gertatutako zerbait dela dirudi.

Alarderik gabeko urte baten ostean, hurrengo urteko jaiak ilusio handiagoz espero dituzu?
Zalantzarik gabe, datorren urteko sanmartzialak bereziak izango dira, nahiz eta jaiez gozatzeko gogo izugarriak urteroko berdinak izango diren.

Zein mezu bidaliko zenieke aurten kantinera gisa aurkezteko ideia zuten neskei?
Puntu eta bereiz bat izan beharrean, egoera hau puntu eta jarrai bat dela esango nieke. Aurten etenaldia izango den arren, kantinera gisa urte bat gehiago aurkeztea gomendatuko nieke. Aurretik urte askotan aurkeztu arren eta amore eman ordez, datorren urtean gogo gehiagorekin aurkeztea aholkatu nahiko nieke. Izan ere, ez dakizu zein izan daitekeen zure urtea, beraz, itxaropena bizirik mantentzea oso garrantzitsua da.

Paco Carrillo, Alarde Tradizionaleko Jenerala:

“Erabaki zaila izan da eta azken momentura arte itxaron dugu alardea antolatzeko aukerarik genuen aztertzeko”

Argazkiak: Estudio Gover

Irungo Alarde Tradizionaleko buruzagien batzordeak maiatzaren 15ean 2020. urteko alardearen antolaketarekin lotutako adierazpena zabaldu zuen. Bertan, aurtengo San Martzial alardea eta alardea inguratzen duten gainontzeko ekitaldiak egingo ez zirela adierazi zuten. Paco Carrillo, Alarde Tradizionaleko Jeneralak erabaki historikoaren nondik norakoak azaldu ditu.

Erraza izan da aurten alarderik egingo ez dela erabakitzea?
Ez, erabaki zaila izan da eta azken momentura arte itxaron dugu alardea antolatzeko aukerarik genuen aztertzeko, baina, hasieratik konplikatua izango zela ikusten genuen. Hiru diputazioak eta Eusko Jaurlaritza udako jaien funtzionamenduaren inguruko protokoloa sortu zutenean aurtengo alardea antolatzea ezinezkoa izango zela ikusi genuen. Alardean parte hartzen duten soldaduen artean bi metrotako distantzia mantenduz alardea antolatzeko gai izango ginateke, baina, ezinezkoa da espaloietan pilatzen den jende guztia kontrolatzea.

Erabakia hartzeko prozesuko momenturen batean alardea egin ahal izateko aukerarik ikusi duzue?
Ez, egia esan, guztiz kontrakoa gertatu zaigu. Hasieran esperantza apur bat genuen, baina, konfinamendua arintzeko antolatutako faseetako arauak ikusi genituenean aukera guztiak desagertu ziren. Fase guztiak gainditu arren, normaltasun berriaren barruan ezinezkoa litzateke San Martzial egunean pertsonen arteko distantzia guztiak errespetatzea.

Nork parte hartu du aurten alarderik ez egiteko erabakian?
Alardean hartzen diren erabaki guztiekin gertatu ohi den bezala, Agintarien batzordeak hartutako erabakia da eta alardeko Jeneralak, Infanteriako Komandanteak eta kapitain eta unitate buru guztiek parte hartzen dute bertan. Normalean hilabetean behin bildu ohi gara, baina, osasun krisialdia iritsi zenetik astero, asteazkenetako txaloen ostean, era telematikoan bilerak egin ditugu. Bileretan egoeraren bilakaera aztertu dugu, baina, azkenean alarderik ez egiteko erabakia hartu dugu.

> “Aurten ahal bezain beste disfrutatzeko ahalegina egin behar dugu, beti ere, segurtasun neurri guztiak errespetatuz”

Alardeaz gainera, Alardealdia ere bertan behera gelditu da?
Bai, noski. Alarderik egingo ez zela jakinarazi genuenean, alardearekin lotutako ekitaldi guztiak ere bertan behera gelditzen zirela adierazi genuen, hau da, Alardealdia, kantineren aukeraketa, entseguak, kantineren aurkezpena edo Armen Ikuskatzea.

Nola erantzun dute irundarrek erabaki honen aurrean?
Alde batetik, irundarrek egoera honen aurrean hartutako erabakia primeran ulertu dutela uste dugu, inork ez baitu kontrako asmorik adierazi. Ardura handia izan da erabaki hau hartu beharra, baina, karguarekin loturik dagoen zerbait da.

Arraroa da alarderik gabeko urte batean Jenerala kargua betetzea?
Bai, oso arraroa da, izan ere, 1938. urtean gertatu zen azkeneko aldiz. Hala ere, badira okerragoak diren egoerak.

Alarderik egin ez arren, ardura eta zereginek ez dute etenik?
Bai, erantzukizun handiko karguak dira eta hor erdian botoa berritzeko ekitaldia dago, 1522. urteaz geroztik gure arbasoak emandako zin-hitza betetzeko. Urtero egin ohi den moduan egitea ezinezkoa izango dela argi dago, baina, ikusteko dago ekitaldia beste moduren batean egiteko aukerarik izango ote dugun.

Bestelako ekintzak antolatzeko asmorik duzue?
Bai, alardearen antolakuntzaren barruan alardeko komunikazioa kudeatzeaz arduratzen den lantaldea dugu eta haiek arduratzen ari dira ekaineko hilabetean zehar antolatuko diren ekintzak eta sare sozialetako edukiak prestatzeaz. Orokorrean ekintza birtualak egingo dira eta oraindik antolatuko diren gauzen xehetasunak zehazteko daude.

Zuk pertsonalki aurtengo jaiak nola ospatuko dituzun pentsatu duzu?
Nire ustez tristura eragiten duten bestelako ezbeharrak daude bizitzan. Beraz, nahi ez genuen egoera bat izan arren, aurten ahal bezain beste disfrutatzeko ahalegina egin behar dugu, beti ere, segurtasun neurri guztiak errespetatuz.

Datorren urteko alardea gogo gehiago disfrutatuko duzuela uste duzu?
Badira datorren urteko alardea zalantzan egon daitekeela esatera ausartzen direnak, baina, nik momentuz ez dut horrelako zerbaitetan pentsatu nahi. Nire buruan 2021. urteko alardea zoragarria izango da eta, aurtengoaren balorazioa egin ostean, hurrengoa antolatzen hasiko gara irailetik aurrera. Horrela, hurrengo urterako sei kapitan berri aukeratuko dira eta dena martxan jarriko da berriro.

Zein mezu bidaliko zenieke irundarrei?
Aurreko urteetako mezu berdina bidaliko nieke, hau da, disfrutatzea. Gure sare sozialetan partekatu bezala ekaineko hilabete berezi bat izango da eta gure ondorengoei kontatu ahalko diegun zerbait izango da. Familia eta lagunekin elkartzeko aprobetxatu behar dugu, soilik urtean behin gertatzen diren momentu berezi hauetaz disfrutatzeko.

Helena Benet, Bandako kantinera joan den urtean:

“Urtero alardean parte hartu arren, kantinera izan osteko urtea berezia izaten dela esan ohi da”

Helena Benet Alarde Publikoko Bandako kantinera izan zen 2019. urtean, aurreko urteetan Bidasoako konpainian soldadu gisa desfilatu ostean. Kantinera izandako urtearekin lotutako oroitzapen politak dauzka eta aurten berriro alardean soldadu gisa desfilatzeko asmoa zuen arren, 2021. urteko alardea gogo askorekin espero duela onartu du berriro jaia barnetik bizi ahal izateko.

Osasun krisialdia iritsi aurretik, nola imajinatzen zenituen 2020. urteko Irungo jaiak?
Urtero alardean parte hartu arren, kantinera izan osteko urtea berezia izaten dela esan ohi da, gauzak era ezberdin baten ikusten omen direlako. Alardea izango zuen urte normal bat espero nuen. Bandako kantinera berria ezagutu, loreak eman eta bandako kantineren picoloa berari pasatzeko gogo asko neuzkan. Beraz, aurten ahal den moduan disfrutatuko dugu.

Nola jakin zenuen aurten alarderik egongo ez zela?
Momentuko egoera ikusita espero nuen albistea zen eta mundu osoko egoera ikusita alarderik egingo ez zela pentsatzen hasia nintzen. Berriro alardeaz disfrutatzeko gogoak neuzkan, baina, Irungo jaien gainetik, munduko gertaera behar duten garrantzia ematea ezinbestekoa iruditzen zait. Aurten alarderik egin ez arren, datozen urteetan orain arte bezala antolatzen jarraituko dugu.

Joan den urtea bizipen bereziz betetako urtea izan zen?
Oso urte berezia izan zen. Jon Bandako zuzendaria urte asko ibili zen nire atzetik Bandako kantinera gisa aurkezteko eta, asko pentsatu ostean, 2019. urtean zuzendari bezala bere azken urtea izan zenez, pausua ematea erabaki nuen. Koadrilako guztientzat urte berezia izan zen, ni Bandako kantinera izateaz gainera, Zalditeriako kantinera ere koadrilakoa zelako.

“Urte desberdin bat izango dela ulertu eta datorren urte arte itxaron beharko dugu”

Zeintzuk izan ziren 2019ko alardean bizitako une berezienak?
Goizeko 5:00etan Alborada etxe azpian jo zidatenean balkoian amarekin asko hunkitu nintzen. Eguna horrela hasi ostean, momentu bereziak bata bestearen atzetik etorri ziren. Ekainaren 29an, adibidez, Bandako entseguan Zalditeriako kantinera zen nire lagunari nirekin ateratzeko eskatu nion eta bera alboan eramatea oso polita izan zen.

Aurreko urteetan alardean soldadu gisa parte hartu duzu?
Bai, duela lau urte hasi nintzen desfilatzen, lehenengo Hondarribiko alardean, Irun nire bizitokia denez bertan desfilatzeak errespetu gehiago ematen zidalako bizi nitzakeen tentsio momentuengatik. Izan ere, alardean soldatu gisa ateratzeko erabakia hartzen duzunean kanpotik une desatseginak bizi beharko dituzula onartzen duzu, baina, jasotako txaloek balio bikoitza dute alarde publikoaren barnean.

Bandako kantinera izan arren, beste konpainietan desfilatu duzu?
Aurreko urteetan Bidasoa konpainiarekin desfilatu izan dut, koadrilako gehienak bertan elkarrekin ateratzen ginelako. Lehen urtean danborrarekin elkarrekin atera ginen eta bigarren urtean kaboaren papera hartu nuen. Bandako kantinera izan ostean, aurten Bandarekin desfilatzeko asmoa nuen, baina, zeinek daki zer egingo dudan hurrengo urteetan.

Nola imajinatzen dituzu aurtengo jaiak?
Ez dakit nolakoa izango den alarderik gabeko urte hau. Ziurrenik egun horietan lan egin beharko dut, orduan, gauean lagunekin elkartuko naizela imajinatzen dut eta afariren bat antolatuko dugula pentsatzen dut, jende gutxirekin noski. Urte desberdin bat izango dela ulertu eta datorren urte arte itxaron beharko dugu.

Alarderik egon ez arren, Irunen jai giroa nabarituko dela uste duzu?
Bai, azken finean, ekitaldirik antolatu ez arren, jendeak urteko egun berezi hauek ospatzeko gogoak dauzkala uste dut. Jai egunekin batera jendea alaitu, jaietako arroparekin jantzi eta kaletik alardeko musikak entzungo ditugula ziur nago.

Etenaldi honen ostean, datorren urteko festak gogo bereziekin hartuko dituzu?
Bai noski, aurretik esan bezala, ez zaigu ezer gertatuko aurtengo jaiak ez ospatzeagatik, datorren urtera arte itxarongo dugu. Hala ere, egia da festak ospatzeko gogoak hor gordeta izango ditugula.

Maite Vergara, alarde publikoko jenerala:

“Aurten biziko ez duguna, datorren urtean gogoz ospatuko dugu”

Argazkiak: Aitor Juaristi

Maite Vergara Alarde Publikoko jeneral lanetan ibili zen joan den urtean lehen aldiz. Osasun krisialdiaren ondorioz, apirileko hilabetearen amaieran alarde publikoko antolakuntzatik 2020. urteko alardea bertan behera gelditzen zela jakinarazi zen. Ekaineko hilabetearen hasierarekin Maite Vergara jeneralak berez sentsazioak azaldu ditu.

Erraza izan da 2020 alarde publikoa bertan behera uzteko erabakia hartzea?
Ez da erabaki erraza izan, baina, apirilean nahiko argi geneukan aurtengo alardea antolatzea ezinezkoa izango zela. Erabaki erraza izan ez arren, hartu beharreko erabakia zela argi ikusi genuen hasieratik, izan ere, segurtasun neurriak alardearen barnean zein kanpoan errespetatuko direla bermatzea ezinezkoa da. Hala ere, erabakia ozen esatea beste kontu bat da, nahiko ez genuen zerbait erabaki behar izan dugulako.

Erabaki konplikatua izateaz gainera, erabaki historikoa ere bada?
Bai, izan ere, momentu ezohikoz betetako urtea bizitzen ari gara eta aurrerantzean ez errepikatzea espero dugu. Okerrena, ordea, ez da erabakia hartzea, baizik eta aurreko hilabeteetan zehar gizarteak sufritutakoa eta sentitutako bakardadea, hori izan da gogorrena. Horren guztiaren ostean gizarteko ohiturak lehenbailehen berreskuratu ahal izateko gure esku dagoen guztia egin behar dugu.

Momenturen batean alardea antolatzeko aukerarik ikusi duzue?
Ez, erabakia apirilaren bukaera hartu genuen eta hor inguruan Iruñeko San Ferminak eta Donostiako Aste Nagusia bertan behera gelditzen zirela jakinarazi zen. Izan ere, ezinezkoa da egoera honetan jaiak kalean ospatzea, beraz, jai birtualak antolatu beharko ditugu.

“Segurtasun neurriak alardearen barnean zein kanpoan errespetatuko direla bermatzea ezinezkoa da”

Nork parte hartu zuen aurtengo alardea bertan behera uzteko erabakian?
Guk junta ireki baten bitartez hartzen ditugu alardearekin lotutako erabakiak. Egia esan, eztabaida gutxi egon zen, jendeak argi baitzuen zer zen egin beharrekoa.

Nola erantzun zuten hiritarrek erabakia ezagutarazi zenutenean?
Kalean zurrumurruak zeuden jada eta jendeak alardearen antolakuntzatik erabaki hau hartzea eta zentzuz jokatzea eskertu digu. Hala ere, jendeak erabakia pena handiz jaso duela onartu digu, nahiz eta datorren urteko alardea paregabea izango den.

Nolako sentsazioa duzu alardeko jeneral gisa alarderik gabeko urte batean?
Aurreko urtean nuen sentsazio berdina, izan ere, nire lehen alardea izan zen jeneral gisa. Joan den urtekoa berezia izan zen eta aurtengoa , berriz, ezohikoa izango da, baina, horrela gertatu dira gauzak.

Alarderik egin ez arren, zereginak izaten jarraitzen duzue?
Egia da, alardea antolatu gabe zereginak era nabarmenean murrizten direla. Izan ere, jaiegunak iritsi aurreko egunetan gauza asko antolatu behar dira, baina, ardurak alardearekin lotura estua dute beti.

Ekainean Irunen alarderik gabe jai giroa antzeman ahalko dela uste duzu?
Jai giroa birtuala izan behar dela uste dut, kaleetan jai giroa aurten guztien artean bizitzea desegokia dela iruditzen zait jendea festetan aztoratu egiten delako. Jende asko elkartu eta aurreko hilabeteetan lortutako guztia pikutara bidaltzea onartezina da.

Alarderik gabe, bestelako ekintzarik antolatzeko asmoa duzue?
Gauzak prestatzen ari gara eta ekaineko hilabetean zehar sare sozialetan partekatuko ditugu antolatutako ekintza guztien albisteak. Horregatik, ekintzen berri izan nahi dutenek Facebook, Instagram, Telegram eta alardeko webgunera adi egon behar dira ekintza guztien berri izateko.

Nola ospatuko dituzu zuk aurtengo jaiak?
Irunen gelditu naiz, baina, ez dakit zehazki nola ospatuko ditudan. Oso aldakorra den egoera bizi dugu, beraz, orain egin daitekeena, baliteke hemendik aste batzuetara gauza bera egitea posible ez izatea. Horregatik, oraindik ez dut ezer prestatu.

Zein mezu bidaliko zenieke irundarrei aurtengo jaien atarian?
Zentzuz jokatu behar dugu atzerapausorik ez emateko. Askotan esan ohi da momentu okerrenetan gauza onenak ateratzen direla eta agian momentu hau aproposa izan daiteke gizartea batu eta elkarrekin egin ditzakegun gauzez jabetzeko.

Datorren urteko alardean pentsatzen hasi zara jada?
Pentsatzen ez dakit, baina, izugarrizko gogoekin biziko dugula argi eta garbi daukat. Aurten bizi izan ez duguna, datorren urtean gogoz ospatuko dugu.

Uranzu frontoiko uztailaren 1eko pilota partiduak ez dio aurtengo hitzorduari kale egingo

Pilota jaialdia ate itxiekin jolastea saihestu eta ikusleen edukiera erdiarekin jokatu ahal izatea espero da





Alarma egoerak behartutako etenaldiaren ostean, esku-pilota uztailaren 1ean itzuliko da Irungo Uranzu frontoir. Irungo jaietako egitaraueko azken egunean Uranzu frontoian jokatu ohi den pilota partidua aspalditik San Pedro eta San Martzial jaien inguruan antolatzen den kirol ekitaldi nagusietako bat da.

Hiru hilabete eta hiru asteren ostean esku pilota Eibarreko Astelenean itzuliko da San Joan egunean. Egun batzuk beranduago, uztailaren 1ean, asteazkenean, egingo da Irungo Uranzu frontoian, hiriko San Pedro eta San Martzial jaiei amaiera ematen dien pilota partidua. Espainiako gobernuak alarma egoera ezarri eta esku-pilota profesionaleko jarduera guztiz eten ostean jokatuko den lehen hitzorduetako bat izango da.

Irungo udala Aspe eta Baiko Pilota enpresekin akordio batera iritsi da esku-pilota partidua uztailaren 1ean Irunen jokatu dadin. Pilota jaialdiko xehetasunak zehazteko dauden arren, bi enpresetako pilotariak bikote mistoak osatuko dituztela aurreikusten da. Hortaz gain, partidua ate itxiekin jolastea saihestu nahi da eta pilotalekuaren edukiera %50era arte bete ahal izango dela espero dute pilota txapelketako antolatzaileek. Euskal Telebistak zuzenean emango du Uranzu pilotalekuan jokatuko den esku-pilota profesionaleko jaialdia.

Etenaldia behartuaren eragina

Martxoan itxi ziren frontoietako ateak esku-pilota profesionalarentzat. Azken partidua Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokatu zen martxoaren 8an. Azken partidu hori Binakako Txapelketako Finalerdietako ligaxkako lehen jardunaldiko bigarren partida izan zen. Partiduan Aimar Olaizola eta Aitor Arangurenek, Mikel Urrutikoetxearen ordezkoak, Unai Laso eta Jon Ander Albisurren kontrako indarrak neurtu zituzten. Olaizola II.na eta Arangurenek osatutako bikotea izan zen garaile erronka 22-10 puntuko markagailuarekin amaitu ostean.

Pilotariak hurrengo partidurako materiala aukeratzera iritsi ziren arren, estatu mailan alarma egoeraren ezarpenarekin Enpresen Ligako partidak bertan behera gelditu ziren. Egun batzuk beranduago Aspe zein Baiko Pilota elkarteek kirola jarduera bertan behera uzteko asmoa iragarri zuten, enpresako langile zein pilotariei aldi baterako enplegu erregulazioa ezarriz. Itzulerako partiduaren data ezagutu ostean, pilotariak enpresekin bildu eta haien egoera aztertu behar izan zituzten ABEEen iraungitze data printzipioz ekainaren 30erako markatuta zegoelako , hau da, Irungo partidua baino egun bat lehenago. Ekainaren 8an Euskadi konfinamendua arintzeko hirugarren fasean sartu ostean, pilotariek taldekako entrenamenduak berreskuratu ahal izan zituzten, gehienez 4 pilotariz osatutako taldeetan.

Frontoi historikoa

Irungo Uranzu pilotalekua 1930eko hamarkadaren hasieran eraikitzen hasi zen eta 1934. urteko uztailaren 1ean jokatu zen frontoia inauguratu zuen lehen partidua. Inaugurazio eguneko goizeko 11:00etan errebote partidua jokatu zuten alde batetik jokalari frantziarrek eta bestetik espainiarrek osatutako taldeek. Arratsalde horretan bertan arratsaldeko 16:30etan jokatutako lehen erremonte partidua jokatu zen frontoi estreinatu berrian. Hasierako urteetatik pilotalekuak lotura estua izan du hirian esku-pilota zein eskubaloiaren inguruan antolatutako kirol ekitaldiekin.

Frontoia eraberritzeko birmoldaketa lanak amaitu ostean, 2019. urteko uztailaren 1ean estreinatu zuen Uranzu pilotalekuak bere irudi berritua. Birmoldaketaren bitartez frontoiaren edukiera 728 ikusleetara zabaltzeaz gainera, Uranzu frontoiko instalakuntzak egokitu eta berritu ziren, eraikinean areto balioanizdunak sortuz. Horrela, 2020. urtean, osasun krisialdiak baldintzatutako San Pedro eta San Martzialetako jai ezohiko batzuen erdian, Uranzu frontoia esku-pilota profesionalarekin lotutako hitzordu garrantzitsu baten lekuko izango da berriro.

Argazki-oinak:
G50309: Uranzu frontoia inauguratzeko 1934. urteko uztailaren 1ean jokatutako pilota partidua.
G26360: Uranzu frontoi estalia 1975. urtean.

Kirol ekintzak sanmartzialetako programako beste protagonistak

Irungo San Pedro eta San Martzial jaien inguruan antolatzen den ekintzen egitarauaren barnean kirol erakustaldi eta txapelketak ekintzen parte garrantzitsu bat dira. Hiriko jai eta kirol ekintzen arteko lotura aspalditik datorren zerbait da, izan ere, XX. mendearen hasieratik Irungo jaien inguruko kirol txapelketak edo bestelako ekitaldiak antolatzen dira.

2020. urtean, San Pedro eta San Martzial jai ezohiko batzuen aurrean, Junzal Eizaguirre kultura ordezkariak azaldu duenez, kirol ekitaldi gehienak bertan behera uztea ezinbestekoa izan da. Izan ere, hiriko festen inguruan antolatu ohi diren txapelketa edo kirol erakustaldi gehienek jende pilaketa handiak eragin ohi dituzte, parte hartzaileen arteko segurtasun distantzia errespetatzea ezinezkoa edo osasun agintariek adostutako segurtasun neurriekin bateraezinak dira.

Irungo Artxiboaren webgunean argitaratutako lehen jaietako programa 1909. urtekoa izan arren, ekintza gutxi batzuk biltzen dituen jaietako egitarau horren barnean ez da kirolarekin lotutako ekintzarik iragartzeko. Izan ere, zezenketak edo herri eta hiri desberdinetatik etorritako musika banden kontzertuak ziren garai hartan Irungo jaien inguruan antolatzen ziren ekintzak.

Ekaineko jaietako programaren barruan izan ez arren, baina, 1913. urtean San Martzialeko Guduaren lehen mendeurrena ospatzeko antolatutako ekitaldi berezien arten abuztuaren 29an pilota partidua antolatu zen Patronatuaren frontoian, abuztuaren 30ean, futbol partidu berezi bat jokatu zen bitartean. Horrela, 1914. urtetik aurrera argitaratutako jaietako programetan kirol ekintzek presentzia handiagoa izango dute. Urte horretan gainera, kirol ekintzak jai egun handira arte iritsi baitziren , ekainaren 30ean Bilboko Athletik klubeko jokalaria eta Real Racing taldeen arteko futbol partidua antolatu baitzen. 1910. urteko hamarkadaren barruan "Gran Match de Lucha Greco-Romana", Bidasoa ibaiko estropada eta igeriketa txapelketa eta Cross Country Lasterketa ekintzak batu ziren jaien programara.

Iraganetik orainaldira

Irungo jaietako programaren barnean badira aspaldian lehen aldiz antolatu eta bere horretan gaur egungo festetara arte iraun duten ekintza. Adibidez, uztailaren 1ean egin ohi den pilota partidua 1910. hamarkadaren amaieran antolatu zen lehen aldiz. Hortaz gain, jai egun nagusiaren aurreko egunetan egin ohi den txirrindulari txapelketa, historian zehar izen ezberdinak izan dituen arren, XX. mendeko lehen hamarkadetan antolatu zen lehen aldiz.

Era horretan, gaur egungo jaietako programa osatzen duten ekintza asko eta asko 1970. hamarkadan zehar batu ziren egitaraura. Adibidez, urte horietan zehar lehen Halterofilia txapelketa antolatu zen. Uztailaren 1ean, berriz, pilota txapelketa profesionalarekin batera, lehen Euskal Kirol erakustaldiak eta Dantza Sueltoko txapelketak antolatu ziren. Modu honetan, jai egunak ekainaren 28an hastetik, jai egunak luzatu eta ekainaren 23ra arte luzatu ziren, kirol ekintza gehiago antolatzeko aukera emanez. 1990. urtetik aurrera antolatutako festetako programek ordea, antzekotasun handiak dauzkate gaur egun arte antolatutakoekin, egitura zein antolatutako ekintzei dagokienez.

Berezitasunak

Hala ere, badira gaur egun antolatu ez, baina, iraganean antolatutako ekintza berezi eta imajinaezinak. Beste ekintza batzuen artean 1930. urtetik aurrera Stadium Galen uso-tiroketa txapelketa ugari antolatu ziren, San Martzialeko trio-zelaia eraiki arte. 1970. hamarkada inguruan boxeo gauak antolatzen ziren Uranzu frontoian. Uranzu frontoia eskubaloi, judo edo katas lehiaketen lekuko izan da, besteak beste. Azken mendean zehar Bidasoa ibaian igeriketa lehiaketak eta estropadak antolatu ziren. Hortaz gain, Toki-Goxoko zelaian egindako San Martzialeko Moto-Kros Saria, Segalarien San Martzial Saria eta Yoga erakustaldiak jaietako programaren parte izatera iritsi dira.

ARGAZKI-OINAK:

G62406: San Martzialeko Lehen Moto Kross txapelketa Real Moto Klubak antolatua Toki-Goxo zelaian.

G41061: Irun Hiria nazioarteko zubien lehen zeharkaldia.

G60684: Uranzu frontoian 1979ko uztailaren 1an antolatutako boxeo txapelketa.

G28544: Halterofiliako erakustaldia 1982ko San Martzial jaietan.

G24402: San Martzial jaien harira antolatutako Segalari Txapelketa 1986. urtean.

G28503: Herri Kirolen erakustaldia 1982. urteko San Martzial jaietan zehar Urdanibia plazan.

Euskaraz, Irunen barrena

Ai ai ai mutilla

Ai ai ai mutilla,
txapela gorria.
Oraingo mutil txarrak
eztute bertzerik merezi
urian beratu ta
lixiban egosi

Oronoz-Mugaireko M.G.I.ri jasoa (1960-III-27). Gurasoei ikasi zien. (El Bidasoa, 1960-IV-23)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Hirubide DBH2

EUSKO LEGEBILTZARRA

Azaroaren 27an, Hirubideko 3.C-ko eta 3.B-ko ikasle batzuk Gasteizko Legebiltzarrera joan ginen. Hirubiden goizeko 9etan autobusa hartu genuen eta Gasteizera bidean joan ginen ikasleak. 11etan, gutxi gorabehera, iritsi ginen Gasteizera eta han Legebiltzarra bisitatu genuen.

Lehenik eta behin, langile batek sesio gelara eraman gintuen eta azalpen bat eman zigun gela horri buruz: zer egiten den bertan, zertarako balio duen, nortzuk egoten diren bertan...

Ondoren, Legebiltzarkideekin elkartu ginen eta taldeka jarri ginen galdera batzuk erantzuteko. Galderak erantzun baino lehen, Legebiltzarkide batzuek haien esperientziak kontatu zizkiguten, mezu bat bidaltzeko asmoz. Kontatu ziguten ez dela oso ohikoa neskek mutilen ogibideetan lan egitea, baina ez dugula etsi behar gure ametsak lortu arte.

Galdera horiek erantzun eta gero, denen artean komentatu genituen eta hamaiketako txiki bat eskaini ziguten. Hori bukatzerakoan, bakoitzak bere iritzia idatzi zuen paper txiki batean eta zuhaitz batean zintzilikatu genituen paperak.

Azkenik, argazki bat atera genuen guztiok batera Legebiltzarkideekin eta handik ateratzerakoan, motxila eta poltsa bat oparitu zizkiguten bakoitzari. Autobuserako bidean, bazkaldu egin genuen eta Hirubidera bueltatu ginen arratsaldeko 16:00etarako.

Oihane Urtizberea, Enara Elkano, Nahia Bueno, Leire Aragon eta June Bengoetxea

Bidasoa Frutak
HORECAKO BILTEGIA ETA BANAKETA
ZUREGANDIK GERTU: ESKEINTZA BEREZIAK
619213777 - 691216638

Junkaltxo
MAKOTTE JANARIAK
Janaria eramateko prest
Blas de Lezo, 22 - behe IRUN
Tel 943 61 36 70

Txingudi Ikastola HH

la BIO teka

Denda ekologikoa
Garputz konposaketaren analisia
HEYQNUT - Fruitu lehor krema
Aukeratutako produktu ekologikoak
Produktu onenekin beteriko zure ECOBOXa hilabetero jaso ezazu
bioteka.es Beraketa 15, Irun 943 63 04 68

Egunera zaitez!

Egunean egon nahi al duzu enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntariotzari buruz?

Izena eman ezazu IGazteren buletinera, eta jasoko duzu zure postan. Interesatzen zaizun guztia zure eskura!

Irungo IGazte bulegoa San Juan plazako CBA Kultur Gunean aurkituko duzu. Informazio gehiago nahi izanez gero, IGazte zerbitzuaren webgunea, igazte@irun.org posta elektronikoa, 943 505 444 telefono zenbakia eta 607 771 173 zenbakian WhatsApp bidez.

Errenta Fundazioko 4 bekak, COVID-19ak kaltetutako

Errenta Fundazioko 4 bekak, COVID-19ak kaltetutako unibertsitarioentzat. Beka jasoko duen ikasle bakoitzak 5.000 euro arte jasoko ditu ikastetxe pribatuko zein publikoko matrikula ordaintzeko.

Era berean, ikasketetarako beharrezkoak diren errenta edo ostatua ordaintzeko ere erabil daiteke.

Izen-emate epea: 2020ko ekainaren 15etik irailaren 15era arte.

Espainia osorako balioa duten aisialdiko ikastaro ofizialak

Alquite aisialdiko eskolak Espainia osorako balio duten aisialdiko ikastaro ofizialak eskaintzen ditu. Eskolak Aisialdiko Begirale eta Aisialdiko Koordinatzaileentzako ikastaroak eskaintzen ditu. Ikastaroen fase teorikoa era telematikoan egingo da %100ean.

Aisialdiko Begirale ikastaroak ekainaren 6tik uztailaren 15era egingo da. Aisialdiko Koordinatzaile ikastaroa, berriz, ekainaren 6tik uztailaren 25era izango da.

Eurodesk buletina

Gazteen mugikortasunerako informazioa eskaintzen du.

Hauek nabarmentzen dira: prestakuntzarako aukerak eta Europako batzordeko hainbat erakundetan praktika egiteko aukera.

Orain Eurodesk-en azken buletina, 2020ko ekainekoa, kontsultatzeko aukera duzu webgunean.

Eta har ezazu gogoan aukera hauek eta gehiago aurkituko dituzula gure webean: www.eurodesk.es
Eurodesk Espainian zuen esanetara gaude.

DYA Gipuzkoaren ikastaroa

DYA Gipuzkoak ikastaroa antolatu du ekainaren 22tik uztailaren 3ra. Ikastaroa astelehenetik ostiralera egingo da, goizeko 9:00etatik 12:00etara.

Ikastaroak DYAk Donostiko Intxaurrondo auzoko Baratzategi kaleko 10. zenbakian duen egoitzan egingo da.

Izen-emateak eta informazio gehiagorako deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira edo bisitatu DYA Gipuzkoaren webgunea. (www.DYAgipuzkoa.com)

16 eta 30 urte bitarteko gazteentzako doako online ikastaroak

Gazte Enplegurako Programa Operatiboa

Biltegiko laguntzailea (iraila)

Saltzailea janari lasterreko establezimenduetan (ekaina)

Zein kolektiborentzat dira eta zein baldintza bete behar dituzte?
16-30 urte bitarteko gazteentzat, NAN edo AIZ (lan-baimena) dutenak eta programa hasteko unean ikasten edo lanean ez daudenak eta Gazte Bermean inskribatutako gazteak.

Informazioa eta izen-emateak:
Gurutze Gorria Irun - Euskal Herria hiribidea 14 (Partxis etxeak), 678 505 577, 678 505 588 edo 943 621 162 telefono zenbakietara deituta edo naerto@cruzroja.es zein raquel.delrio@cruzroja.es posta-elektronikoetara idatziz.



San Pedro eta San Martzial jaiekin lotutako ekintzak

San Juan Arbola

San Juan plazan ohikoa den bezala San Juan arbola ipiniko da aurten ere. Aurten, ordea, zuhaitza pandemiak eragindako biktimentzako omenaldi batean bihurtu da. Beraz, nahi duten pertsonek, zuhaitzera gerturatu eta biktimen oroigarri gisa lore batzuk uzteko aukera izango dute.

Jaietako testigantzak

Gizartean orokorrean pandemiaren eragina gehien sufritu dutenak adineko pertsonak izan direnez, Irungo udalak adineko pertsonek hiriko jaien inguruan dauzkaten oroitzapen eta bizipenak bilduko dira. Jasotako testigantza guztiak dokumental batean bilduko dira.

Marrazki-mosaikoa

4 eta 14 urte arteko haur eta gazteentzako marrazki-mosaiko tematikoa antolatu du Kultura arloak "Il Duomo: Asociación artística cultural Il Duomoren" eskutik. Haurrek etxean San Juan suaren edo San Martzial guduaren inguruko marrazki bat bidali beharko dute ekainaren 23a baino lehen arteilduomo@gmail.com helbidera edo ekainaren 23an 18:00etatik 21:00etara Amaia KZan entregatu beharko dute. Marrazki bakarrarekin parte hartu ahalko da eta parte-hartzaileen artean hiriko saltokietan jasotzeko material-sortak zozketatuko dira. Marrazki guztiekin Udalaren web-orrian zintzilikatuko den mosaikoa egingo da.

Jaietako kartelen erakusketa

San Pedro eta San Martzial jaietako ekintzen aurrerapen gisa urte horretarako kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin erakuskeka antolatu ohi da Amaia Kultur Zentroan. Aurten, ordea, ekintza egokitu eta Amaia Kultur zentroan 1906. urtetik aurrera hiriko jaiekin lotuta argitaratutako jaietako kartelak erakutsiko dira erakusketa batean.

Bakarrizketa

Jaietako programaren beste hitzordu ezinbesteko bat uztailaren 1ean Zabaltza plazan egin ohi den bakarrizketa jaialdia da. Aurten, jaialdia bere horretan antolatzea ezinezkoa denez, hiriari buruzko Agustín Jiménezek bakarrizketa bat grabatuko du, bideoz zabalduko dena.

San Martzial Gune Etxean

Bertako talentu artistikoari balioa emateko ekimen honen laugarren edizioa egingo da 2020. urtean "San Martzial Gune Etxean" izenburuarekin. Irundarrek bakarka edo gehienez 4 pertsonetako taldeetan (kideen %50a gutxienez Irungoak izan behar dira) parte hartu ahalko dute. Parte-hartzaileek 5 minutuko emanaldia grabatu behar dute eta emanaldi bakoitzak 60 euroko laguntza ekonomikoa jasoko du. Ekintzan izena emateko epea ekinaren 17ra arte irekita egongo da eta aukeratutako artisten bideoak ekainaren 26an arratsaldean erakutsiko dira Irungo Udaleko YouTube kanalaren bidez, Mateo Vergarak aurkeztutako saio batean.

SUPER AMARA

GORA SAN MARTZIAL!!